

# Gradu Amaierako Lana

## HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN AHOTSAREN ERABILERA

**Egilea: Alonso Areitio, Karmele**

**Zuzendaria: Urrutia Rasines, Ana**

**Leioan, 2019ko maiatzaren 24an**

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
1. ESPARRU TEORIKOA.....	4
1.1. Ahotsa .....	4
1.2. Haurren ahotsaren garapena.....	5
1.3. Ahotsa Haur Hezkuntzan .....	6
1.4. Ahots-hezkuntza .....	8
1.4.1. Ahots-aparatuaren funtzionamendua eta ahotsaren emisioa .....	9
1.4.2. Arrisku-faktoreak .....	10
1.4.3. Ahots-gaixotasunak.....	11
1.4.4. Ahotsaren zaintza .....	11
2. METODOLOGIA.....	12
3. LANAREN GARAPENA .....	13
4. EMAITZAK .....	14
5. ONDORIOAK.....	21
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	24

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN AHOTSAREN ERABILERA

**Karmele Alonso Areitio**

UPV/EHU

Haur Hezkuntzako gelan ahotsa da irakaslearen baliabiderik erabiliena, ezagutza transmititzeaz eta ekintzak egiteaz gain, jarrerak, arauak eta, bereziki, hartzaroan oinarrikoa den zubi emozional zein afektiboa eraikitze bide nagusia baita. Irakaslearen eguneroko lan-tresna denez, egoki erabiltzen jakitea garrantzitsua da; hain da garrantzitsua, non irakasleak gaixotzearen bigarren arrazoi ohikoena ahots-arazoak diren. Lan honetan Haur Hezkuntzako irakasleen ahotsaren erabilerari zein ahots-hezkuntzari buruzko ezagutzak eta jarrerak ikertu dira eta, orokorrean, bai inkontzientzia, bai ezjakintasun nabaria dagoela ondorioztatu da. Irakasleen eta ikasleen ongizatea bermatzeko, beharrezkoa da ahotsaren inguruko formakuntza eskaintzea, baita norberak ahotsa lantzeko konpromisoa hartzea ere.

*Haur Hezkuntza, ahotsa, irakaslea, baliabidea, ahots-hezkuntza*

En Educación Infantil la voz es el recurso más utilizado por el profesorado, porque además de emplearse para realizar las actividades y para transmitir conocimiento, actitudes y normas, es el medio principal para establecer el vínculo emocional y afectivo que es básico en la infancia. La voz es la herramienta diaria del profesorado y por lo tanto es importante saber utilizarla correctamente; tal es la importancia, que los problemas de la voz son la segunda razón por la que el profesorado enferma. En este trabajo se han investigado tanto el conocimiento como la actitud del profesorado de Educación Infantil en torno al uso de la voz y la educación vocal, concluyendo que en general hay una gran falta de conciencia y conocimiento. Para garantizar el bienestar del alumnado y del profesorado, es necesario ofrecer formación vocal y un compromiso individual respecto a su uso.

*Educación Infantil, la voz, profesorado, recurso, educación vocal*

The voice is the teachers' most used resource in childhood education, apart from being used to do activities and to transmit knowledge, behaviours and rules, it is the main medium to establish an emotional and affective bond. The voice is teachers' daily tool and for that reason it is important to know how to use it properly; it is so important, that problems related to the voice are the second reason for teachers' sick leaves. In this project childhood education teachers' knowledge and behaviour regarding the use of the voice and vocal education have been researched, concluding that there is a big lack of consciousness and knowledge. In order to ensure students' and teachers' welfare, it is necessary to offer vocal education and, also, to promise to work on it.

*Childhood education, voice, teachership, resource, vocal education*

## SARRERA

Ahotsa da irakaslearen baliabide nagusia eta hezkuntza prozesurako oso garrantzitsua, batez ere, Haur Hezkuntzari begira, zeinetan ahozko komunikazioa haurrak eta irakasleak komunikatzeko erarik aberatsena den. Hori horrela, ahotsa lantzea zein zaintzea ezinbestekoa da. Ahotsaren zaintza irakaslearen osasun eta ongizatearen barnean dagoen alorra da (Del Mar, 2017); baina ez hori bakarrik, irakaslearen hobe beharraz gain, ikasleengan ere eragin zuzena du. Landutako ahotsa hezigarriagoa da, alde batetik, irakasleak nahi duena eraginkortasun handiagoz transmitituko duelako eta, bestetik, ikasleek ahots hori eredutzat hartuko dutelako (Martín, 2016). Hortaz, kalitatezko hezkuntzak arrakasta izateko aukerak anitzak izango dira.

Gai hau aukeratzearen arrazoi nagusiak bi izan dira, elkarri lotuta daudenak: bata, bai ikasle, bai irakasle gisa izan ditudan bizipen pertsonalak eta, bestea, gaiarekiko dudan interesa. Haur Hezkuntzako graduan zehar zenbait ikastetxetan praktikak egiteko aukera izan dut. Egonaldi horietan Haur Hezkuntzako irakasleen ahots-erabilera ezberdinak ezagutu ditut, baita ahotsarekin erlazionatutako zailtasunak ere. Aipaturiko praktikaldiek nire ahotsaz kontziente izaten lagundu didate; are gehiago, Haur Hezkuntzako gelan ahotsak jokatzen duen paper inportanteaz ere ohartu naiz. Gai honekiko ezjakintasuna nire larruan bizi izan dut, sarritan desegoki erabili dudalako eta, ondorioz, ahotsean aldaketak, mina eta marranta izan ditudalako. Niri gertatzeaz gainera, ikastetxeetako beste irakasleei ere antzera gertatzen zaiela ikusi dut. Halaber, gogoan dut nire txikitako hainbat irakaslek gelan ahotsa urratzen eta min hartzen zutela. Era berean, senide hurbil bat Haur Hezkuntzako irakaslea da eta noizean behin ahotsarekin zailtasunak izan ohi ditu, desegoki erabiltzeagatik. Beraz, oso hedatua dagoen ezjakintasuna dela sumatu dut.

Hori horrela, gai honi buruz aztertzea interesgarria bezain beharrezkoa dela iruditzen zait. Esandakoa esanda, lan honen ikergaia honako hau da: Haur Hezkuntzako irakasleek ahotsaren erabilerari garrantzia ematen diote eta ondo erabiltzeaz arduratzen dira?

Galdera horri erantzuna ematea da lan honen helburua eta xede hori erdiesteko hurrengo orrialdeetan aurkezten den ikerketa egin da.

## 1. ESPARRU TEORIKOA

### 1.1. Ahotsa

Ahotsa gizakiaren lehenengo soinua da, gorputzean sortzen dena eta komunikatzea ahalbidetzen diguna. Baliabide berezia da, gure barnean gertatzen den orok eragina baitu ahotsean. Gizakiaren uneko maila fisikoa, psikologikoa eta emozionala erakusten dituenek, hizlariaren aldartearen zein izaeraren ispilu da (Cañete, 2010; Castellá eta Vila, 2015; Rodrigo, 2004;). Ildo beretik ahotsa tresna pribilegiatua da, hitza eta musika elkartzeko dituen bakarra eta pertsonaren osotasuna barne hartzen duena (Bernal, 2005), baita beste komunikazio-tresnak ez bezalako adierazpen- eta komunikazio-ñabardurak eskaintzen dituen ere (Sanjosé, 2003). Komunikatzeko tresna nagusia izateaz aparte, mezuaren edukiarekin batera soinua-informazioa ematen duena ere bada; izan ere, norberaren gorputzaren alderdi ez-materiala da eta norbanakoari identitatea ematen dio (Vila, 2008).

Ahotsa giza-komunikaziorako euskarria izatetik haratago doa, entzuleari informazioa transmititzeko bidea izateaz gain, nahi eta nahi ez norbanakoaren adierazpen osoa baita:

La voz es una manifestación expresiva de la persona en su totalidad; a través de ella cada individuo logra expresarse y comunicarse con sus semejantes de una manera singular y única. La voz trasluce la vida psíquica y emocional de quien se expresa, en ella subyace una compleja acción de nervios, huesos, cartílagos y músculos, que implica al cuerpo de manera global. La voz sirve para la emisión de las palabras y estas a su vez lo son para comunicar, intercambiar o compartir nuestras emociones y sentimientos (Busto, 1995, 25 orr.).

Beraz, ahotsa gizabanakoa munduan nola dagoen islatzen duen adierazpen argia da (Sanuy eta Sanuy, 1982). Komunikazio-egoeraren arabera, 4 erabilera bereiz daitezke (Larrea, 2013): lehenengoa hitz egiteko ahotsa da, egunerokotasunean ohiko elkarrizketetarako erabiltzen da eta gertu dagoen pertsonen talde txikiari zuzentzeko balio du; komunikazio egoera lasaiak dira, zeintzuetan helburu nagusia mezua komunikatzea den. Bigarrena, proiektaturiko ahotsa da, zeinetan erabilitako ahotsak besteengan eragina duen (Roques, 2007); irakasleek darabilten ahotsa da eta komunikazio-egoera zaratsutsuak izan ohi dira. Abestea talde horri dagokio. Hirugarrena, larritasun-ahotsa da, erabilera desegokiaren eta gehiegizko ahaleginaren emaitza sortzen den ahots kaltetua zein kontrolik gabea dena. Azkenik, badaude beste erabilera

bereziak (barrea eta negarra, esaterako) eta kasu horietariko bakoitzean fonazio-aparatuko elementuak era jakinean jarduten dira.

Ahotsa jaiotzetik garatzen den baliabidea da (Díaz, Ibarretxe, García, Malbrán eta Riaño 2010), jaiotza bera soinu-unea izanda; izan ere, oihua eta negarra haurtxoen lehenengo adierazpenak dira (Sabbatella, 2001). Nahiz eta hitz egiteko gaitasuna beranduago garatzen den, haurtxoek hitzezkoak ez diren soinuak egiten dituzte, besteak beste, barrea, oihua, hasperena, eztula, doministikua, zotina eta negarra. Dimonen (2013) arabera, adierazpen natural eta automatiko horiek biziraupenerako ezinbestekoak izateaz aparte, inguruarekin harremanetan jartzeko aukera ematen diete; hortaz, komunikazioa ahalbidetzen dieten lehenengo adierazpenak dira. Gorputz adierazpena (hala nola, begirada, aurpegi- eta esku-keinuak) ere lagungarria da zeregin horretarako. Are gehiago, Mehrebianen (1972) ikerketak erakutsi zuenez, ahotsa (%38) eta hitzezkoak ez diren elementuak (%55) ahozko komunikazioan eragin handiena dutenak dira (hitzak edo edukia %7 izanik). Hortaz, komunikazioa hitzetatik eta esaldietatik haratago doa, esateko moduak (keinuak eta ahotsak, bereziki) esaten denak baino pisu handiagoa baitu (Itza, 1993; Steinbeck, 1962).

## **1.2. Haurren ahotsaren garapena**

Haurren ahotsa apurka-apurka garatzen da (Díaz et al., 2010): 1. hilabeteen ahotsaz baliatzen dira haien premiak asetzeko, baita testuinguruarekin komunikatzeko ere, eta amaren ahotsa da gehien lasaitzen dituen; Federicok (2005, 58 orr.) dionez, «la voz de la madre es la conexión más importante con el medio en los primeros días, pues le informa de lo que sus ojos todavía no pueden ver». 1-4 hilabeteen artean, haien fonazio propioa esploratzen hasten dira (Cremades, 2017) eta, horrela, nork bere burua ezagutzeari ekiten dio, lehenengo zizkadurak (plazerra eragiten dizkieten soinuen errepikapenak) eta kantuek agertzen direlarik. Modu horretan, soinuak egiteko gaitasunaz kontziente izaten hasten dira (Tomatis, 1996).

4-8 hilabeteen bitartean, abesteko zein hitz egiteko oinarrizko unitateak agertzen dira eta ahotsaren alderdi, bai afektiboa, bai komunikatiboa garatzen hasten dira. Tarte horretan, 6-7 hilabetearen inguruan zehazki, laleo (kontsonante eta bokalen elkarketak) fasean murgiltzeaz gain, helduen eta haurren arteko lehenengo komunikazio fonikoa ematen da, benetako elkarrizketaren kutsua duena. 8-12 hilabete dituztenean, ahozko

komunikazioa sendotu eta kontzienteki egiten dituzte negarra eta oihua bezalako soinuak. Era berean, entzundako soinuak imitatzen dituztenez, garrantzitsua da hurrei eskaintzen zaien soinu-giroa, horrek eskaintzen dizkien aukeren arabera baita haien garapena. Horren harira, sehaskatik inguratzen gaituen giro musikal eta hezigarriaren ondorio garena esan ohi da (Sanjosé, 2003). 12-18 hilabeterekin kantu silabikoa egiten dute eta abestien egitura melodikoak finkatzeari ekiten diote. Intuizioz eta esplorazioz, ahotsa era ezberdinetan erabiltzen dute.

2-3 urteen artean hitz egiteko gaitasuna garatzen da, esaldi melodiko berbera duten abestiak errepikatzen dituzte eta imitazioak pisu handia izaten jarraitzen du. 3-4 urterekin abesti osoak (onomatopeiadunak batik bat) abesten dituzte eta, gainera, abestiak asmatzen zein hitzen aukera musikalak aztertzen hasten dira. 4-5 urterekin abestiak (gehienbat animaliei buruzkoak eta argumentu sinplekunak) ikasi eta intonatzeko gaitasun handia dute, baita soinuak adierazteko trebetasun sinbolikoa ere. 5-6 urteko hurrek abesti eta melodia errepertorio zabala dute eta hitz (soinu)-jolasak dituzte gustuko.

Esan bezala, inguruko giroak eragin zuzena du hurrengan eta zenbat eta soinuan aberatsagoa den testuingurua izan, orduan eta aukera gehiago dituzte haien ahotsa ezagutu, frogatu eta horretaz kontziente izateko (Cremades, 2017). Hurren inguru hurbilena familia da eta hurrengoa ikastetxea. Ikastetxea 2. gizarteratze-eragile indartsuena da, hori dela eta, bertako egonaldiak (eta, bereziki, haiekin dagoen irakaslearen ereduak) berebiziko eragina du hurren ahotsaren garapenean.

### **1.3. Ahotsa Haur Hezkuntzan**

Haur Hezkuntzako gelan ahotsa da tresnarik erabiliiena, gelako bizitzako osagai intrintsekoa baita (Castellá eta Vila, 2015). Hitz egiteaz gain, ahotsaren erabilera abestietan nabaritzen da; hurrek hitz egin aurretik abesten dutela esan ohi da (Agosti eta Rapp, 1988). Kodalyk, XX. mendeko hungariar musikagile eta pedagogoak, abesti herrikoiek hezkuntzan duten balioa azpimarratu zuen eta hortik abestiak baliabide hezigarri zein motibagarriak diren ideia sendotuz joan da. Abestea giza-adierazpenaren oinarria da (Phillips, 1996) eta abestiak komunikatzeko bitartekariak dira, hitzak eta soinuak bateratzen dituztenak eta garapen globala (batez ere, emozionala, soziala, hizkuntzakoa eta mugimendukoa) sustatzen dutenak (Torres, 2011). Beste baliabide

hezigarri indartsuak ipuinak dira, zeintzuetan ahotsa gakoa den, bai narrazioa kontatzeko, bai pertsonaiak adierazteko. Horiek guztiak irakaslearen esku egongo dira, hura izango baita interpretatu eta hurrei eskainiko dizkienak (Muñoz, 2001). Beraz, ahotsaren bidez eredu egokia erakutsi behar zaie.

Ahotsa da irakaslearen erremintarik funtsezkoena eta, Haur Hezkuntzan batez ere, irakaslearen presentzia adierazten du (Abo-Hasseba, Alku, Geneid eta Waaramaa, 2017). Ahotsa da, ezagutzak, jarrerak eta sentimenduak transmititzearekin batera, hurrekiko atxikimendua sustatzen duen zubia. Etapa horretako irakaslearen ardurarik nagusienetarikoa hurrei euskarri emozionala ematea da eta ahotsa baliabide preziatua da horretarako (Alsina, 2004; Pascual, 2006). Irakasleak ahotsa erabiltzen du gelako giroa kudeatzeko, alegia, hurbiltasunaren eta urruntasunaren edo konplizitatearen eta autoritatearen arteko harreman orekatua ezartzeko (Castellá eta Vila, 2015). Dena den, Haur Hezkuntzako irakaslearen ahotsa tinkoa baina goxoa eta konfiantza zein ziurtasuna transmititzen dituen izan behar da, ondo ulertzen eta entzuten dena, baita tinbre atsegina duena ere. Cañeteren (2010) iritziz, haren ahotsak hurrengo ezaugarriak izan behar ditu: espaziora ondo proiektatua, intentsitatea egokia, naturala eta tinbre goxoa zein lasaigarria.

Gogora dezagun irakasleak erabateko influentzia duela hurrengan, hark hitzez esaten duena baino, esateko eta egiteko modua barneratzen baitute. Etapa horretan harremana funtsezko elementua da eta, harreman horretan, hurrek irakaslea eredutzat hartzen dute (Zabalza, 2009). Irakasleak haurtzaroan eragiteko duen ahalmena izugarria da, hurrek imitatzeko eta jarraitzeko figuratzat hartzen baitute (Sanuy, 1996). Beste era batera esanda, Haur Hezkuntzan esplorazioarekin eta jolasarekin batera, imitazioa da ikaskuntzarako bide eraginkorrena (Akoschky, Alsina, Díaz eta Giráldez, 2008), «ya que mediante la imitación el niño toma para si algo del otro» (Meltzoff, 1995, 839 orr.). Comellas eta Perpinyasek (1982) garai horri garrantzi handia ematen diote, etorkizunean izango den helduaren oinarriak haurtzaroan eraikitzen direlako.

Irakaslea ahotsaren bidez jarduten denez, bere lan-tresna da. Arestian esan bezala, proiektaturiko ahotsa da gelan darabilena, haur taldearengan eragina izateko erabiltzen baitu. Horren barnean, ahotsaren erabilerarik nabariena hitz egitean, abestean eta ipuinak kontatzean aurki daiteke (Bermúdez et al., d.b.); horregatik, erabilera zabala menperatu behar du (hitz egiteko, abesteko eta deklamaziorako ahotsa).



Nahiz eta ahotsa irakaslearen eguneroko baliabidea den, inolako prestakuntzarik gabe erabili izan ohi du (Gasull, Godall eta Martorel, 2000). Ez da ahotsaren ahalmena eta eragina baloratzen, ezta haren zaintza ere, eta, horregatik, kontzientzia eskasa dago haren inguruan (Larrea, 2013). Haur Hezkuntzako curriculumean, 237/2015 dekretuan, irakasleari dagokion atalean ez zaio ahotsaren erabilerari edota zaintzari lekurik aitortzen. Hutsune handia dago arlo horretan eta asko dira ahotsaren formakuntza aldarrikatu dutenak, kasurako: Calatravaren (2012) iritziz, beharrezkoa da (are gehiago ahotsa lan-tresna nagusia duten profesionalen kasuan) ahots-aparatua zein haren aukerak ezagutzea, norberaren ohitura edo joerez kontziente izateko eta horiek jarduera edo mekanismo egokien automatizazioen bidez zuzentzeko.

Jakina da irakasleak ahotsa egun osoan erabiltzen duela eta egoera anitzetan gainera. Horri formakuntzarik ez izatea gehitzen bazaio, ahotsa era desegoki edo gehiegizkoan erabiltzea dakar eta, horregatik guztiagatik, irakaslearena ahots-gaixotasunak izateko joera handiko lanbidea dela esaten da (Pazo, 2004). Halaber, *Sociedad Española de Otorrinolaringología*-ren ikerketen arabera, irakasleen %50ak ahots-gaixotasunak pairatzen ditu (Cortazar eta Rojo, 2007). Hori horrela, aipaturiko ikerketa berberak irakasleek baja hartzearen bigarren arrazoi nagusia ahots-arazoak (disfoniak, zehazki) direla erakutsi dute. Arazoa dagoenean eta ahotsa urratua dagoenean, orduantxe, hasten da ahotsaren zaintzaz arduratzen eta formatzen, baina une hori iritsi arte ez zaio inolako garrantzirik ematen (Bermúdez et al., d.b.). Beraz, soilik lesioa sortua dagoenean ahotsa hezi eta zaindu behar dela pentsatzea akats handia da; izan ere, egokiena arazoa (hots, gaixotasuna) ekiditea da eta, horretarako, prebentziora gidatutako formakuntza jasotzea ezinbestekoa da.

#### **1.4. Ahots-hezkuntza**

Ahotsaren erabilera egokia ikasi eta landu beharreko zerbait da (Tejeda, 2001) eta, ikaskuntza oro bezala, ahotsaren heziketa pausu ezberdinetatik igarotzen da, fonazio aparatua eta haren funtzionamendutik hasita, arrisku-faktoreak, gaixotasunak eta ohitura osasuntsuak ezagutu, eta ezagutza horiek guztiak lantzea, inkontzienteki automatizatu arte (Bermúdez et al., d.b.). Horrela, irakasleak ahotsa behartu gabe erabiliko du eta haren ongizate profesional zein pertsonala bermatuko ditu.

### 1.4.1. Ahots-aparatuaren funtzionamendua eta ahotsaren emisioa

Ahots-hezkuntzaren lehenengo pausua ahotsa sortzeko sisteman nola interferitzen dugun ohartzea da. Ahots-aparatua 3 elementuk osatzen dute (ikusi 1. eranskina) eta hirurek batera, koordinatuta, funtzionatzen dute.

Elementu horietariko bat arnas-aparatua da. Bertan birikiak eta diafragma, gorputzeko gihar autonomo bakarra eta ahotsaren apoioa dena, daude. Arnas-aparatuaren helburua soinua sortzeko beharrezkoa den airea hartzea da; izan ere, arnasketa ahotsaren emisioaren oinarria da, airerik gabe ez baitago soinurik eta soinurik gabe ez baitago ahotsik.

Arnasketan 4 denbora landu behar dira. Lehendabizi, sudurreko inspirazioa, sakona eta birikiak puztea zein diafragma uzurtzea eragiten duena (ikusi 2. eranskina). Bigarrenik, segundu batzuetako erretentzioa, zeinetan soinua eusten den eta fonazio aparatua hitz egiteko edo abesteko prestatzen den (ahots-kordak aktibatuta). Hirugarren denbora ahoko espirazio motela da; azken horretan, airea birikietatik irten eta laringetik igarotzean, ahots-kordak eragiten ditu. Gainera, birikiak hustu egiten dira eta diafragma gora egin zein hasierako pozisioa berreskuratzen du (ikusi 2. eranskina). Laugarren unea arnasa botatzen denetik berriro hartzen den arte dagoen itxaron unea da.

Horrez gain, garrantzitsua da jakitea 4 arnasketa mota daudela: abdominala, saihestartekoa, klabikularra eta osoa. Arnasketa osoa da hobetsi beharrekoa, horretan baitago arnasketaren kontrol boluntariorik handiena (Gustems, 2007).

Arnas-aparatuarekin batera, fonazio-aparatua behar da. Soinua jaio eta igarotzen den pasabidea da, zeinetan laringea eta ahots-kordak dauden. Arnasketaren bidez inspiraturiko airea laringetik igotzen da eta aire horrek duen presioak bi ahots-kordak dardarazten ditu. Bibrazio horri esker, soinu-uhin zehaztugabeak sortzen dira.

Ahots-aparatuko azken elementua erresonantzia-aparatua da, laringearen gainetik dauden barrunbeez osatuta dagoena (ikusi 3. eranskina). Laringean sorturiko soinu-uhinak laringearen gainetik barrunbeetan durundatzen dira eta, horrela, soinuak tinbre pertsonala hartzen du. Horren ostean, ahotik kanporatzen da. Gizabanako bakoitzak erresonantzia-aparatu propioa du eta horrek norberaren ahotsa ezaugarritzen du (Aguerri, 1998).

Ahots-aparatuaren barnean ahoskatzeko organoek (mihaiak, hortzek eta ezpaineak) ahoz komunikatzea ahalbidetzen digute, soinua ulergarri egiten dutelako (Alcalde, 2001). Baina, horretarako soinua erresonantzia barrunbeetan kokatu (ikusi 4. eranskina) eta kanpora proiektatu behar da (ikusi 5. eranskina).

Ahotsean gorputzaren osotasunak eragiten duenez (Larrea, 2013), garrantzitsua da gorputza guztiz zuzen, luzatuta eta erlaxatuta egotea, ahotsa sortzeko organoak aske mugitu eta ahotsa era automatiko zein naturalean sortu ahal izateko (Rodrigo, 2004).

#### **1.4.2. Arrisku-faktoreak**

Ahotsaren igorpenean eragina duten arrisku-faktoreak 3 motatakoak dira (Martín, 2016). Faktore pertsonalak gizabanako bakoitzaren araberakoak dira, hala nola, gorpuzkera, gaixotasunak eta aspektu psikologikoak. Norberaren ongizate fisiko zein psikikoa baldintzatzen duten aspektuak dira, bai emozioen, bai sentimenduen kudeaketarekin eta autoestimuaekin harreman zuzena dutenak. Halaber, gero eta ohikoagoa den bizi-erritmo urduriak tentsio handia eragiten du.

Inguruneko faktoreen artean zarata, kutsadura, tenperatura, kea, hezetasuna, aireztapena, hautsa eta akustika azpimarra daitezke. Orokorrean, ahotsa kaltetzen duten muturreko baldintza desagokiak dira. Zarata pertsonengan zein inguruan kalteak eragiten dituen soinua desatsegin eta mingarria da (Cortazar eta Rojo, 2007). Gelan zarata handia egon ohi da eta horrek irakaslea inguruko zarataren intentsitatearen gainera ahotsa altxatzera eramaten du. Oihukatzea ez da haurren arreta erakartzeko modurik eraginkorrena, alde batetik, ikasleek eredu hori barneratzen dutelako eta, bestetik, irakaslearentzat erabat kaltegarria delako (Fiuza, 2011). Horren ordean, gure artean kutsu ezkorra duen isiltasuna (ikusi 6. eranskina) sortzea gomendatzen da (Cremades, 2017). Gelako ezaugarriak ere zaindu behar dira, ahotsaren igorpenean eragina baitute.

Azken faktorea, lanari dagokiona, irakaskuntza-jardunarekin, ikasleen adina eta kopuruarekin, ordutegiarekin eta formakuntza ezarekin, besteak beste, dago lotuta. Irakasleak funtzio eta ardura gehiegi izatearen ondoriozko estresa pairatu ohi du, horrek ahotsean eragina duelarik. Lanbide honek errendimendu fisiko zein psikologiko handia eskatzen du eta, sarritan, ahotsa bortxatzen da horri aurre egiteko. Zenbat eta ikasleak gazteagoak izan, Haur Hezkuntzan batez ere, orduan eta gehiago erabiltzen da ahotsa;

era berean, Canuytek (1985) adierazten duen lez, lanaldi osoan zehar etengabe erabiltzen da eta inolako formakuntzarik gabe.

### **1.4.3. Ahots-gaixotasunak**

*World Health Organization*-ek (1986) irakaslea ahots-gaixotasun profesionalak izatearen arriskupean dagoen lehen lanbidea izendatu zuen. Horregatik, Claeys, Van Houtte, Van Lierde eta Wuytsen (2011) zein Cortazar eta Rojoren (2007) aburuz, nahiz eta kontu garrantzitsua ez dela uste den, ahots-gaixotasunek osasun arazo ugari eragiten jarraitzen dituzte.

Ahotsaren soinu-ezaugarriak (altuera, intentsitatea, erritmoa eta tinbrea) kaltetzen dituzten nahasmenduei disfonia deritze (Busto, 1995) eta 3 mota bereizten dira: funtzionalak, organikoak eta mistoak. Disfonia funtzionalak, ahots-aparatua baldintza egokietan egonik, ahotsaren erabilera desegokiaren ondorio dira. Ahots-aparatua kaltetuta edo gaizki dagoenean, disfonia organikoa dela esaten da (Cortazar eta Rojo, 2007). Disfonia mistoak beranduegi diagnostikaturiko edota zaindu ez diren disfonia funtzionalak dira; hau da, anatomikoki ondo dagoen aparatua gaizki erabiltzearen eta, horregatik, lesio organikoa sortzearen ondorio dira. Azken horiek dira ohikoenak, bereziki, laringitisa, noduluak, polipoak eta edemak (Ranchal eta Vaquero, 2008). Nahasmendua ahotsaren erabateko galera denean afonia deritzo.

### **1.4.4. Ahotsaren zaintza**

Ahotsaren zaintza osasun orokorraren menpe dago (Canuyt, 1985) eta, hortaz, ohitura osasuntsuak norberaren eguneroko errutina eta bizimoduaren parte izan behar dira benetan eraginkorrak izan daitezten. Jarraian, aditu ezberdinen (Canuyt, 1985; Castellá eta Vila, 2015; Cremades, 2017; Fiuza, 2011; Martín, 2016) aholkuak bildu ditut eta ahotsaren zaintzarako dekalogoia sortu dut (ikusi 8. eranskina).

Aharrausi edo ez tul egin ordez, listua irenstea edo ura edatea hobesten dira. Era berean, hitzezkoak ez diren soinuak (bereziki, isiltasuna) eta gorputz adierazpena erabiltzea aholkatzen da haurren arreta deitzeko. Jakina da ahotsa irakaslearen lan-tresna dela eta, etengabe erabiltzen duenez, bera lasai eta eroso sentiarazten duen tonua zein intentsitatea erabili behar ditu. Halaber, lanaldian zehar, 20 minuturo atsedean hartzea

gomendatzen da, baita lanaldia amaitzean deskantsatzea eta hura hasi aurretik berotzea ere.

Ahotsa erabiltzeko orduan gorputza erabat erlaxatuta eta zuzen egon behar da (ikus 7. eranskina) eta arropa eroso erabiltzea hobesten da. Arnasketari dagokionez, arnasketa osoa egin behar da, 4 denboraldiak errespetatuta. Horrekin batera, soinua aurrerantz zein kanporantz proiektatzea eta egoki ahoskatzea oinarrizkoak dira. Erregulartasunez jarduera fisikoa egitea (bereziki, ibiltzea eta igeriketa) onuragarria da, baita gutxienez 8 orduz lo egitea ere.

Elikadura gertutik zaindu beharreko aspektua da, ahots-aparatuaren eta digestio-aparatuaren arteko harremana estua baita; hori horrela, erraz digeritzen diren elikagaiak hobesten dira eta funtsezkoa da ur ugari (zehazki, egunean 2 litro) edatea. Ahotsaren zaintza neurriekin bukatzeko, aipaturiko arrisku-faktore guztiak ekidin behar dira.

Ezin dugu ahaztu ahotsa irakaslearen lanerako baliabide nagusia dela, bizitza guztirako dena eta eredugarria izan behar duena. Aipaturiko prebentziorako ikuspegia irakasle zein ikasleentzat da onuragarria. Irakaslea ahotsaz kontziente bada eta ohitura osasuntsuak barneratuak baditu, ikasleei, bai eredu, bai ohitura onak erakutsiko dizkie; halaber, haren ongizateaz gain, ikasleena ere bermatu ahalko du, bere jardunaren errendimendua hobea izango delako eta, gainera, ikasleen ahots-arazoak identifikatzeko gai izango delako (Tejeda, 2001).

Hori guztia esanda, lan honen helburua Haur Hezkuntzako irakasleek ahotsak gelan duen garrantziaz kontziente diren eta, era berean, ahotsa egoki erabiltzen dakiten aztertzea da.

## **2. METODOLOGIA**

Esparru teorikorako informazio bilketa egin da eta, gero, irizpide batzuk kontuan izanda, ikerketa bat gauzatu da. Ikerketa horren bidez, Haur Hezkuntzako irakasleen gaiarekiko ikuspegia zein ezagutza-maila ezagutu nahi dira. Orohar ikerketa kualitatiboa egin da, errealiteraz jotzen duena eta gizabanakoa bere osotasunean ulertzen duena; alegia, haren bizipenak, esperientziak, pentsamenduak eta sentimenduak jasotzen dituen, alderdi arrazionalista eta emozionalari, biei, lekua emanda (Mesias, 2004). Metodologia kualitatiboaren barnean, elkarrizketa da lan honen helburua erdiesteko

teknikarik aproposena, subjektuei buruzko datuak era zuzenean jasotzea ahalbidetzen baitu; are gehiago, aurrez aurreko elkarrizketa da datuen bilketarako oinarritzko iturria (Olabuénaga, 2012). Hortaz, arestian aipaturiko irizpideak abiapuntu izanda, Haur Hezkuntzako irakasleentzako elkarrizketa egin da.

Elkarrizketa Haur Hezkuntzako 26 irakasleri egin zaie, 21 emakumeri eta 5 gizoni; zehazki, 1. zikloko 7ri, 2. zikloko 14ri eta 5 espezialistari (ingeleseko bati, musikako 3ri eta psikomotrizitateko bati).

Irakasleez gain, Balbino Rojo Colino logopeda ere elkarrizketatu da. Balbino Eusko Jaurlaritzako heziketa departamentuak gidatutako irakasleriaren ahots-arazoaren prebentziorako kolaboratzailea da eta, Isabel Cortazarrekin batera, 2007an argitaraturiko «*La voz en la docencia*» liburuaren egilea da. Beraz, ahotsaren gaian aditua da eta Haur Hezkuntzako irakasleak ahotsaren erabileraren eta zainketaren inguruan formatzen ditu. Elkarrizketak hasi aurretik, irakaskuntzan edo logopeda lanetan daramaten denborari buruz galdetu zaie. Era berean, ahotsa grabatzeko baimena eskatu zaie. Ahotsa eta grabatzailea erabili dira elkarrizketa gauzatzeko eta azken hori oinarritzkoa izan da solasaldiak transkribatzeko (ikus 11. eranskinean irakasleen transkripzioak eta 12. eranskinean Balbinorena) zein emaitzak ateratzeko.

Elkarrizketen bidez jasotako informazioarekin emaitzak atera zein interpretatu dira. Era berean, emaitza horiek eta aurreko atal guztiak gogoan izanda, lanaren ondorioak egin dira.

### **3. LANAREN GARAPENA**

Elkarrizketak eduki teorikoa osatzeko erabilitako irizpideak oinarri izanda egin dira. Hori horrela elkarrizketaren irizpide nagusiak 2 izan dira: bata, ahotsaren erabilera eta garrantzia hezkuntzan eta, bestea, ahotsaren erabilera egokiari buruzko ezagutza. Irizpide horiek jarraituta, irakasleentzako zein logopedarentzako elkarrizketak egin dira. Irakasleen kasuan, lehenengo irizpideari loturiko 3 galdera egin zaizkie, zeintzuetan ahotsa erabiltzeko moduz eta horrek haurrengan duen eraginaz galdetu zaien. Bigarren irizpidearen barnean 2 azpi-irizpide bereiztu dira: lehenengoa arrisku-faktoreei, gaixotasunei eta zaintzari buruzkoa da eta horien inguruan dakitena aztertzeko 5 galdera egin zaizkie; bigarren azpi-irizpidea ahots-formakuntzari dagokio eta ahots-heziketarik

jaso duten, ahots-aparatuaren funtzionamendua ezagutzen duten, baita gai horretan hutsunerik nabaritzen duten ere, jakiteko 2 galdera egin zaizkie (ikusi 9. eranskina).

Irakasleekin elkarrizketak izan ostean, logopedari elkarrizketa egin zaio. Irakasleekin erabilitako irizpide nagusiak, azpi-irizpideak eta prozesua berberak izan diren arren, galderak ezberdinak izan dira, irakasleek komentatukoa eta gaian aditua dela aintzat hartu direlako (ikusi 10. eranskina). Logopedari dagokionez, lehenengo irizpideari loturiko 5 galdera egin zaizkio eta horien bidez Haur Hezkuntzan ahotsak zer suposatzen duen, ahotsa egoki erabiltzea zer den eta irakasleek zer nolako kontzientzia duten galdetu zaio. Bigarren irizpidearen lehenengo azpi-irizpideari erreferentzia eginez, Haur Hezkuntzako irakasleen ahotsaren erabileraren, zaintzaren eta gaiarekiko duten ezagutzaren zein jarreraren inguruko 4 galdera egin zaizkio. Eta, bigarren azpi-irizpideari dagokionean, berak eskaintzen duen formazioari buruzko 4 galdera egin zaizkio, zeintzuen bidez ematen duen laguntza eta aholkuengatik, baita gaian nabaritzen dituen hutsuneengatik ere, galdetu zaizkion.

#### **4. EMAITZAK**

Irakasleen emaitza guztiak taula batean laburbildu dira (ikusi 13. eranskina) eta hori lagungarria izan da emaitzak ateratzeko. Halaber, adierazgarriak diren emaitza kuantitatibo batzuk grafikoen bidez adierazi dira (ikusi 14. eranskina). Haur Hezkuntzako irakasleei egindako elkarrizketetatik honako emaitza hauek jaso dira:

1. galdera 2 ataletan banatzen da. 1. atalari dagokionean, irakasle guztiek esan dute ahotsaren erabilerak haien eguneroko lanean garrantzi handia duela, «ahotsa gure lan tresna da» bezalakoak adierazita. Ahotsarekin batera, batek isiltasunaren inportantzia azpimarratu du. Jarraian, ahotsaren erabileraz galdetzean, gehienek haurrekin dauden momentuei egin diete erreferentzia; ildo horretatik, haiekin komunikatzeko, ipuinak kontatzeko, abesteko, azalpenak emateko eta arauak adierazteko zein jarrera okerrak zuzentzeko izan dira gehien aipatu dituzten ahotsaren erabilerak. 4 irakaslek ahotsa afektibotasuna adierazteko erabiltzen dutela goraipatu dute; haren bidez, emozioak adierazten eta umeengana afektiboki hurbiltzen (lasaitzeko, kontsolatzeko eta maitatzeko) dira. Nire aburuz, irakasleak ahotsak hezkuntzan duen paper garrantzitsuaz kontziente dira; hala ere, agerian geratu da ez dela ahotsa alderdi emozionalarekin

lotzen eta, Haur Hezkuntzan bereziki, haurrek ezinbestekoa duten euskarri emozionala eraikitzeko zein sendotzeko baliabide gakoa da.

1. galderaren 2. atalari erreferentzia eginez, irakasleen %57,7ak orokorrean ondo erabiltzen du ahotsa, baina tentsio-momentuetan kontrola galdu eta oihukatzen du (hori desegokia dela onartu arren). Egoerak edo giroak haiengan eragina duela aitortu dute, haurrak lasai daudenean haien ahotsa horrelakoa delako (baita kontrara ere). Irakasleen %26,9ak beti desegoki erabiltzen du: oso altu eta fuerte, oihukatuz, arin, gorputza tentsioan dutela, edozelan arnastuz, eta abar. Irakasleen %15,4ak, berriz, beti egoki erabiltzen duela uste du, egoki arnasten eta tonu aldaketak egitean minik, ezta gaixotasunik ere, sufritzen ez duelako. Orokorrean une kritikoetan, egoerak gaindituta, oihukatzeke joera dagoelakoan nago. Batzuen kasuan, oihua da egunerokotasunean ahotsa erabiltzeko modua. Beraz, irakasleek ez dakite jardun osoan (alegia, une oro) ahotsa egoki erabiltzen.

2. galderari dagokionez, guztiek aho batez baieztatu dute irakaslearen ahotsa erabiltzeko moduak erabateko eragina duela haurren ahotsaren garapenean, haientzat eredu edo erreferente garelara, imitazioz ikasten dutela eta, onerako zein txarrerako, dena kopiatzen dutela arrazoituta. Irakasle ugari ihardetsi dute haurrei urduri eta oihuka hitz egiten dietenean, hori transmititzen dietela eta, ondorioz, umeen erantzuna ere horrelakoa dela. Argi dago, irakaslea haiekin denbora anitz igarotzen duen pertsona denez, haien eredu dela eta harengan ikusten dutenaren ispilu direla. Hortaz, irakasleak erantzukizun handia du ahots-eredu egokia transmititzeko eta gelako giroa kudeatzeko.

3. galdera aztertuta, irakasle guztiek baieztatu dute ikasleen arreta deitzeko ahotsa erabiltzen dutela. Dena dela, ahotsaren barnean modu ezberdinak aipatu dituzte: 15ek tonu zein bolumen gora-beherak, 13k oihua, 6k abestiak, 2k isiltasuna, 1ek txontxongiloari ahotsa jartzea eta beste batek modu barregarrian imitatzea. Batek autoritate-figura indartzeko ahotsa funtsezkoa dela esan du. Ahotsarekin batera, irakasle askok keinuak (begirada edo besoa altxatzea) eta beste teknika batzuk (ekintza edo aldaketa bat sartzea, baita tresnaren bat erabiltzea ere) erabiltzen dituzte, umeak isilarazteko eta kontzentrarazteko. Irakasle anitzek erabilerarik ohikoena oihukatzea dute eta hori ez da egokia. 2k soilik azpimarratu dute isiltasunaren beharra eta haren eraginkortasuna, nire ustez, isiltasunari lekurik, ezta baliorik ere, ematen ez zaion seinale. Ahotsaz gain, beste elementu batzuk ere aipatu dituzte; gorputzak eta ahotsak



bat egiten eta koordinatuta jarduten badute, mezua askoz ere argiagoa delakoan nago. Horrela, goxo baina argi eta tinko, autotitatea erakutsiko da.

4. galderari dagokionez, ingurunearekin loturiko faktoreak izan dira gehien aipatu dituztenak, besteak beste, oihukatzea, zarata eta tenperatura aldaketa bortitzak (berogailua, aire girotua eta korronteak). Lanarekin erlazionatutako faktoreen barnean, formakuntza eza da gehien hauteman duten arriskua eta, ondoren, lanbideak inplikatzeko duen etengabeko erabilera. Azkenik, faktore pertsonalen inguruan, gehienek zaintzarekin erlazionaturiko aspektuak adierazi dituzte, ura ez edatea, edari hotzak hartzea eta erretzea batik bat. Azken esparru horri buruz ezjakintasun handia dagoela uste dut, lanbidea lan karga eta erantzukizun handikoa bada ere, soilik 4 irakaslek estresa, urduritasuna edo tentsioa bezalakoak adierazi baitituzte. Ahotsa norberaren ongizate fisiko, psikologiko eta emozionalaren araberakoa dela ezezaguna da eta, batzuetan, lanerako baliabide bezala baino ez da ikusten; tresna osagarritzat hartzen da, zeinarekin nahi dena eta nahi den moduan egin daitekeen. Beraz, ez dut uste ahotsa gure baitan dagoen eta barne-munduaren ispilu dela kontziente direnik.

5. galdera aztertuta, afonia (20k) eta noduluak (19k) dira irakasleek gehien ezagutzen dituzten gaixotasunak. Horien ostean, hauek ere aipatu dituzte: disfoniak, laringitis eta faringitisa, polipoak, inflamazioak eta iritazioak (ikus 14. eranskina). Gehienek ahots-teknikarik ez izateagatik eta, ondorioz, ahotsa etengabe eta desegoki erabiltzeagatik sortzen direla erantzun dute; batek digestio arazoengatik erantzun du eta beste batek zerbait emozionalki fuertea sufritzeagatik. Irakasle batek ez du gaixotasunik ezagutzen. Nire aburuz, afonia da ezagunena, muturrekoena delako, eta gero noduluak, horiek kentzeko ebakuntza egin behar delako. Izendatu dituzten arren, askotan, gaixotasunak zertan datzaten ez dakitela esango nuke; izan ere, laringitisa, noduluak eta polipoak disfonia mota bati (disfonia mistoari) dagozkio eta haiek gaixotasun guztiz ezberdinak balira bezala aipatu dituzte. Irakasle batek soilik aipatu ditu 3 disfonia motak. Pertsonalki, garrantzitsua iruditzen zait disfonia moten berri izatea, erabilera desegokiaren ondorioz, gaixotasun arina sor daitekeelako eta, hori luzatuz gero, arazo larri bihur daitekeelako, baita genetikoak ez diren gaixotasun gehienek prozesu hori jarraitu ohi dutelako ere. Edema ez du inork aipatu eta, kontrara, nik ezagutzen ez nuen *granuloma de reflujo* esan dute. Gaixotasunen zergatiaz galdetzean, norberaren egoera pertsonala edo ongizatea bigarren planoan geratu da berriz ere.

6. galderari dagokionean, %84,6ak gaixotasunen bat sufritu du. Erantzunak anitzak izan dira: 10ek afonia sarritan; 5ek afonia noizean behin; 5ek noduluak; 3k faringisitisa; 2k ostiralero nekea; 2k katarroa (prozesu birikoa); 1ek granuloma; 1ek iatus eta beste 1ek mononukleosis. Gaixotasunei aurre egiteko moduez galdetzean, orokorrean, berba gutxiago egitea, ur asko edatea, keinuak erabiltzea, lasaitzea, arnasketa zaintzea eta produktu naturalak (eztia, propoleoa eta mantzanilak, kasurako) hartzea aipatu dituzte. 6 irakasle foniatrarengana joan dira, horietariko erdiak noduluengatik. 2 irakasleri ebakuntza egin diete noduluak direla eta, eta 5ek baja hartu dute. Ez dut zalantzarik irakaslearena ahots-gaixotasunak izateko joera handiko lanbidea dela, lanean denbora gutxi daramaten 4 irakasle kenduta, beste guztiak gaixotu baitira. Hala ere, oso gutxi jo dute adituen laguntzara eta, egin dutenean, arazoa larria zelako izan da. Hori horrela, orokorrean min edo arrisku handia ikusi arte ez da laguntzarik bilatzen eta, ondorioz, orduan konponbidea ez da erraza izaten (ebakuntza egitea edo/eta baja hartzea).

7. galderari erreferentzia eginez, guztiek ihardetsi dute ahotsa zaintzea garrantzitsua dela, «gure lan tresna nagusia», «gure parte bat» eta «beharrezkoa» dela gehituta. Nahiz eta horretaz kontziente diren, norberak zaintzen duen galdetzean, erantzunak ez doaz norabide horretatik: aspektu batzuk kontuan hartzen dituzten arren, %65,4k ez du behar bezainbeste zaintzen eta %34,6k ez du batere zaintzen. Ahotsa apur bat zaintzen dutenek zera egiten dute: ur asko edan, edari hotzik ez edan, propoleoa hartu, tonua zein aire korronteak zaindu eta garrasirik ez egin, eztarria babestu eta gauzak lasaitasunez hartu. Gutxi batzuek ahots-hezkuntzaren inguruko kontuak aipatu dituzte, adibidez, diafragma lagunduta arnastea eta ahotsa egoki kokatzea. Besteek ez dute ahotsa zaintzen, inoiz gaixotasun larrikeria izan ez dutelako eta astirik zein garrantzirik ematen ez diotelako. Era berean, informazio eta ezagutzarik ez dutelako ere ez dute zaintzen. Nire iritziz, egunerokoan ez dago ahotsaren zaintzari buruzko kezkarik, hura ondo dagoen bitartean ez baitute beharrezkoa ikusten, eta beti erabili duten moduan erabiltzen jarraitzen dute. Informazio falta eta axolagabetasuna elkarren eskutik doazela esango nuke; alde batetik, informaziorik ez izateak kontuaren garrantziaz ez ohartzea eragiten du eta, bestetik, kontziente ez izateak informazioa ez bilatzera edo hura ez aprobetxatzera eramaten du. Ondorioz, inork ez du behar bezala zaintzen; askok oinarriko aspektu batzuk zaintzen dituzte, baina ahalegin eta lanketa jarraia eskatzen dituztenak albo batera uzten dira eta horrek gaiarekiko dugun konpromiso eta kontzientzia ahula islatzen duelakoan nago.

8. galderari dagokionean, guztiek ahotsa zaintzeko neurriren bat aipatu dute batek izan ezik. Nahiz eta gero haiek ez aplikatu, ahots-hezkuntzarekin erlasionaturiko aspektuak esan dituzte, batik bat, diafragman oinarrituriko arnasketa, berotzeko eta lasaitzeko ariketak, tonu egokia erabiltzea eta ez oihukatzea, ahots-teknika ikastea eta foniatrarengana joatea. Horren ostean, betiko zaintza ohiturak aipatu dituzte, gehienbat, ur asko edatea, elikadura zaintzea, eztea eta propoleoa hartzea, eta gargarak egitea. Neurri horiez gain, nabarmentzekoa da 2k ahotsa zaintzearen garrantziaz kontziente izatea erantzun dutela, baita batek gorputz-jarrerak zaintzea eta beste batek deskantsatzea ere. Gehienek ahots-heziketari erreferentzia egin badiote ere, soilik baten batek aplikatzen du heziketako aspekturen bat. Nire aburuz, horrek erakusten du ahots-hezkuntzari buruzko ideia bat izan badutela, baina hura praktikan jartzen (edo lantzen) ez dutela. Bestetik, bitxia da soilik 2 irakaslek kontziente izatearena aipatu izana, nire iritziz, hausnarketaren ondorioz gaiaren garrantziaz ohartzea eta harekiko jarrera baikorra izatea baitira gakoak.

9. galdera 2 ataletan banatzen da. 1. atala behatuta, irakasleen %61,5ak ahots-heziketa jaso du, baina formakuntza mota anitz izan dira: %56,3k ikastaroak (lan egiten duten ikastetexean), %18,7k ikastaroa eta koroko formakuntza, %18,7k logopedaren saioak eta, azkenik, %6,3k koroko formakuntza. Heziketa jaso duten horiei formakuntzaren baliagarritasunaz galdetu zaie eta logopedaren zein koroko esperientziaren kasuetan, bietan, oso baikor agertu dira, ahotsa kokatzen, diafragmarekin arnasten, erlaxatzen eta, bereziki, ohitura osasuntsuak egunerokoan aplikatzen asko lagundu baitiete. Ikastaroa jaso dutenen artean, aldiz, iritziak askotarikoak dira: %58,3ak, unean bertan ondo egon arren, epe luzera baliagarria izan ez zaiela azaldu du, ahaztu eta mekanizatzeko denbora nahikorik izan ez baitute; %16,7ak oso baliagarria izan zaiela adierazi du, arnasketa egokia egiten, ariketa ezberdinak ezagutzen, ahotsa ondo proiektatzen eta, batez ere, hausnartzea eragin baitie; %25ak ikastaroak ez diela ezer berririk aportatu esan du, bertan landutako teoria jakin badakite, baina hura aplikatzea falta baitzaie. Ahots-heziketarik jaso ez dutenen artean, %90ak beharrezkoa ikusten du jasotzea, egoki erabiltzen eta zaintzen jakiteko zein gaixotasunik ez izateko; gainontzeko %10ak, ordea, ez du premia hori ikusten. Idatziz jasotzea merezi duten zenbait aldarrikapen egin dituzte ahots-heziketaren inguruan: 6 irakaslek ikastaroak sarriago eskaini beharko liratekeela esan dute, ahotsa era jarraian lantzeko, gogoratzeko eta praktika onak barneratzeko; beste 4k, aldiz, norberaren erantzukizuna azpimarratu dute. Horien iritziz,

prozesu luzea da, egunero landu eta zaindu beharrekoa eta horrek benetako kontzientziazioa eta ahalegina egitea eskatzen du (hori da gehien kostatzen dena). Egia da beharko zirenak baino formakuntza gutxiago daudela; dena den, horiek ez dute zentzurik gero norbera bere kabuz saiatzen eta lantzen ez badu. Beraz, ikastaroa jaso dutenen ehunekoa nahiko altua bada ere, ez dut uste datu hori oso esanguratsua denik, ikastaroko saioetara mugatu eta, gero, haien kabuz lantzen ez dutelako. Baina, are larriagoa iruditzen zait irakaskuntzan dauden zenbait irakaslek inolako ahots-hezkuntzarik jaso ez izana.

9. galderako 2. atalean, ahotsa sortzeko prozesuaz galdetzean, erantzunak 4 taldetan sailkatu dira: %50ak gutxi-gorabehera ezagutzen du; %15,4ak oinarrizko kontzeptuak aipatu ditu; %11,5ak azalpen garatua eman du; eta, bukatzeko, %23,1ak ez dakiela aitortu du. Nire iritziz, lotura estua dago 1. eta 2. atalaren artean, jasotako ahots-heziketaren arabera baita ahotsaren funtzionamenduari buruz duten ezagutza; orokorrean, gehienek ikastaroetako oinarrizko ezagutza dute; azalpen garatuagoa eman dutenak denbora luzean landu dutenak izan dira eta funtsezko kontuak zein ezer jakin ez dutenak, aldiz, formakuntza oso ahula edo hura jaso ez dutenak izan dira.

10. galderari dagokionez, gaiari buruz zer nolako hutsuneak sumatzen dituzten azaldu dute eta, esaerak dioen moduan, kolore bezainbeste iritzi jaso dira. Orokorrean, guztiek nolabaiteko informazio gabezia salatu dute, jakintzat ematen denez, inork erakusten ez diela esanda. Bai ahotsa egoki erabiltzeko, bai hura zaintzeko estrategia eta teknikak aldarrikatu dituzte. Ezagutza faltaren ondoren, jada dakitena praktikara eramaten ez jakitea aipatu dute eta, zentzu horretan, formakuntzak praktikara zuzenduagoa egon behar direla adierazi dute. Horren ostean, 5 pertsonak norberak kontzientziarik ez izatea eta, ondorioz, ahots-heziketari denborarik, ezta ahaleginik ere, ez eskaintzea onartu dute. Bukatzeko, prozesua (barneratuta dituzten ohiturak desikastea, berriei lekua uzteko) oso zaila dela eta besteei erakusten jakitea gustatuko litzaiekeela esan dute. Argi dago erabilera egokiari eta zaintzari buruzko ezagutza praktikoa jaso nahi dutela, hori eguneroko bizitzan naturalki barneratu zein mekanizatzeke; dena dela, arreta deitzen dit soilik 5ek norberaren jarrerari buruzko autokritika egin izanak. Ardura besteengan uztea errazena da, baina formakuntza jasotzearekin ez da guztia konponduko, norberak bere esku dagoena egin ezean, informazioa bidetik galduko baita.

Elkarrizketarekin amaitzeko, ahotsa egoki erabiltzen dakiten galdetu zaie eta 5 motatako erantzunak jaso dira: %26,9ak egoki erabiltzen du, umeak adi egotea lortzeaz gain,

gaixotasunik edo minik ez baitu (gutxi batzuek aspektu teknikoak aplikatzen dituztela ere esan dute); %34,6a saiatzen da, baina beti ez du lortzen; jasotako formakuntzari esker %7,7ak lehen baino hobeto erabiltzen du; %26,9ak desegoki erabiltzen du; eta, %3,9ak ez daki zer den ahotsa egoki erabiltzea. Oraindik lan handia dago ahotsa bere osotasunean eta une oro egoki erabiltzen jakiteko. Gaixotasunik ez izatea da irakasleen kezka nagusia, baina haratago jo behar dugulakoan nago: egoera bakoitzaren ezaugarri eta premien arabera, egoera horretara ahotsa era natural zein berezkoan egokitzen jakitea, ahaleginik txikienarekin ahots errendimendurik handiena lortuta eta hura mindu gabe.

Irakasleekin egin bezala, Balbino logopedari egindako elkarrizketatik ere emaitzak jaso dira eta irizpideka aztertu dira.

Lehenengo irizpideari erreferentzia eginez, ahotsa Haur Hezkuntzako irakasleen baliabide nagusia dela ihardetsi du, bereziki, transmititu nahi den mezuari buruzko informazio sozial eta afektibo esanguratsua helarazten baitu. Horrez gain, irakasleak orokorrean ahotsaren eta haren zaintzaren garrantziaz kontziente ez direla azpimarratu du eta, haren aburuz, hori unibertsitateko prestakuntzan oinarritzko formakuntzarik ematen ez delako gertatzen da. Ondorioz, irakasleek ez dakite ahotsa egoki erabiltzen, besteak beste, zamako ahotsa erabiltzen, gaizki inpostatzen eta arnasten dutelako. Balbinoren hitzetan ahotsa egoki erabiltzea zera da: ondo arnastea, arnasketarako euskarri ona izatea, ahots-modulazio handia izatea (eta ez ahots laua), ondo artikulatzea eta, orokorrean, ahots-aparatuan malgutasun muskular handia izatea.

Bigarren irizpidearen lehenengo azpi-irizpideari dagokionez, Balbinok irakasleek ahotsa zaintzen ez dakitela adierazi du zihurtasunez. Bere saioetan kontziente izaten hasten dira, baina saioak ez dira nahikoak, horietan landutakoa norik bere kabuz lantzen ez baitu. Horren harira, irakasleen kezkarik nagusiena minarekin hastea eta horrek gaixotasunen bat edo ahotsaren galera eragitea da. Dena den, bere esperientziaren arabera, arazo larria izan arte ez dute laguntza bilatzen (eta, gainera, ahotsa behartzen jarraitzen dute). Hortaz, nahiko egoera larrian heltzen dira adituengana eta, orduan, konponbidea garaiz hartuko balitz baino askoz ere konplexuagoa izan ohi da.

Bigarren azpi-irizpideari dagokionean, gehien ematen dituen aholkuen, gaixotasun ohikoen eta zainketa neurri batzuen inguruan mintzatu da logopeda. Hala ere, hiru kontu nabarmendu ditu: lehena, ahots-aparatua ordezkazina eta bizitza osorako dela; bigarrena, ikastaroak prebentziora gidatuta daudela eta ez sendatzera (ikastaroen bidez

irakasleak kontzientziaztea eta teknika apur bat ikastea bilatzen baita); eta, hirugarrena, arazoaren jatorria lanbidean bertan eta, bereziki, unibertsitateko formakuntzan prestakuntzarik ez ematea dela. Haren ustez, ahots barik ezinezkoa da irakaskuntzan aritzea eta ahotsa bere osotasunean menperatzeko hura heztea aldarrikatzen du.

## 5. ONDORIOAK

Oinarri teorikoa eta ikerketaren emaitzak aztertuta, alderdi biak alderatu dira. Horrela, teoria eta errealitatea kontrastatu eta, horretaz hausnartu ondoren, lan honen ondorioak atera dira.

Ikerketaren emaitzek erakusten dute irakasleak ahotsak Haur Hezkuntzan duen paper garrantzitsuaz kontziente direla, etapa horretan ahozko hizkuntza (eta, hortaz, ahotsa) komunikatzeko bide nagusia baita (Castella eta Vila, 2015). Nahiz eta haien eguneroko lan-tresna den, orokorrean, erabilera akademikoarekin (gehienbat azalpenekin, abestiekin eta ipuinekin) lotzen dute eta ahotsa izaera zein alderdi emozionalaren ispilu ere badela ahazten zaie. Haur Hezkuntzako eginkizunik garrantzitsuenetarikoa euskarri emozionala eraikitzea zein sendotzea da eta ahotsa da, hain zuzen ere, horretarako baliabiderik aberatsena (Alsina, 2004; Pascual, 2006). Ahotsa ez ezik, hitzezkoak ez diren bestelako adierazpenak ere funtsezkoak dira haurrei nahi dena transmititzeko.

Oso argi dago irakasleak ahotsa erabiltzeko duen moduak erabateko eragina duela haurren ahotsaren garapenean, imitazioaren bidez ikasiz, irakaslea eredutzat hartzen dutelako (Zabalza, 2009); are gehiago, irakasleak esaten duena baino, esateko modua izan ohi da barneratzen dutena. Horretaz jabetzen diren arren, egunerokoan gehienek ez dakite ahotsa egoki erabiltzen, ezta zaintzen ere; izan ere, ez dute ahots-heziketarik jaso edo jasotakoa ez zaie baliagarria izan eta, horregatik, haien ezagutza maila oso baxua da. Egun baliabide anitz eskura badaude ere, ez da ahots-hezkuntzari buruzko formakuntzarik bilatzen. Egia da ikastetxeen bidez antolatutako formakuntzak direla ohikoenak; hala ere, horiek ez dira erabilera zein ohitura egokiak barneratzeko nahikoak. Hori horrela, irakasleek alderdi praktikora zuzendutako formakuntza jarrai gehiago aldarrikatzen dituzte. Irakasle gehienek prestakuntza ikastaro horietan bukatzen da, ez baitute ahotsa lantzen jarraitzen. Hortaz, funtsezko lan-erreminta dakiten arren, behar bezala ez lantzea eta ez zaintzea dira benetan dagoen axolagabetasunaren adierazle garbiak. Ohitura desegokiak hain barneratuak izatearen eta horiek etengabe

jarraitzearen zein mina luzaroan jasatearen ondorioz, gaixotasun larriak agertzen dira. Irakasleek eta logopedak baieztatu dutenez, arrisku bizia ikusi arte ez da laguntza bilatzen, ezta kontzientziatzen ere; hala ere, arriskua igarotzean, berriro kontzientziarik zein zaintzarik gabe erabiltzen da. Hortaz, ahotsari buruzko kontzientzia izatearen bide bakar eta nagusia gaixotasuna izatea dela ondoriozta daiteke.

Inolako formakuntzarik gabe, edonola eta etengabe, erabiltzeari irakasleen esperientzia gehituta, irakaslearena ahots gaixotasunak sufritzeko joera handiko lanbidea dela baieztatu daiteke (Pazo, 2004). Horregatik, Cortazar eta Rojok (2007) dioten lez, gaituta dagoen gaia dela uste arren, ahots-arriskuez hitz egiten eta kontzientzia pizten jarraitu beharra dago. Balbinok esan duen moduan, gizarte-mailako arazoa da, baina Haur Hezkuntzako irakasleengan eragin zuzenagoa du; alde batetik, eguneroko erreminta delako; bestetik, haurrentzat eredu garri delako eta haiengan zuzenean eragiten duelako; eta, bukatzeko, norberaren bizitza pertsonalaren ongizatean eragina duelako. Beraz, guztion hobe beharrez, ahotsaren egoki erabiltzen eta zaintzen ikastea ezinbestekoa da. Errealitatean dagoen kontzientzia ahula indartu eta irakasleak ohitura zein erabilera osasuntsuetan hezteko premia larria dago.

Lan hau egiterakoan aurkitutako oztopoak hainbat izan dira. Ikerketa egiteko lagina handiagoa eta anitzagoa izan balitz, lana esanguratsuagoa edo fidagarriagoa izango litzatekeela uste dut; ildo horretatik, irakasle gehiago elkarrizketatu izan banitu, errealitateko egoerari buruzko ikuspegi adierazgarriagoa lortuko nukeen. Dena den, lagin handiagoa elkarrizketatzeak eta erantzunak aztertzeak denbora gehiago eskatuko lukete eta ezinezkoa izan da. 26 irakasleen esperientzia jaso bada ere, egia da zenbait kasutan ez dela astirik izan elkarrizketak eskatzen duen sakontasunean egiteko.

Elkarrizketak egiterakoan, galdera batzuk modu edo hiztegi teknikoegia erabilita formulatuta zeudela ohartu naiz. Irakasleek ulertzen ez zutela ikustean, esanahia mantenduta, baina hitz xumeagoak erabilita, birformulatu dut. Beharbada, aukeretan kokatzen jakin ez dudana adierazle izan da, elkarrizketak haiek gaiak zekitelako pentsatuta prestatu nituelako.

Esandakoagatik guztiagatik, nire ustez, gai honen inguruan ezjakintasun, kontzientzia eta jarrera gabezia handia dago, bai Haur Hezkuntzako irakasleen, bai unibertsitateko ikasle zein irakasleen artean. Teoria mailan kontrakoa dela jakin arren, ahotsa edozelan erabili daitekeela eta ez duela zaintzarik behar izan da aurkitu dudana errealitatea; izan ere, ahotsa beti ondo egongo dela uste da eta, mina izanda ere, behartzen eta gehiago

mintzen jarraitzen da, inoiz hautsiko ez balitz bezala. Soilik ahotsa guztiz arriskuan ikustean, haren balioaz eta zaintzaren garrantziaz ohartzen gara. Ezer larririk gertatu ezean, inkontzienteki zein ardurarik gabe jarduten dugula erakutsi didate. Ikerketan kontraesan bitxia aurkitu dut; nahiz eta irakasleek bizitza osorako eta gure lanbiderako ezinbestekoa den baliabidea dela jakin badakiten, esaerak dioen bezala, «esaten denetik egiten denera alde handia dago», haien ekintzek eta jarrerak kontrakoa erakusten baitute.

Ahotsak lanketarik behar ez duen ideia hori unibertsitatean ere ikusteko aukera izan dut; hori ere lanbidean jardungo garenon arduragabetasunaren isla garbia da. Ondorioz, ez dugu ahotsa hezitzen eta, lanbidean hasi eta berehala, zailtasunak eta arazoak agertzen dira, egunero eta etengabe ahotsa egoki erabiltzeko prest ez gaudelako.

Orokorrean, formakuntzarik ez jasotzeari eta jasotakoa baliagarria ez izaterari botatzen zaio arazo horren errua. Bat nator lanbidean zein unibertsitatean formakuntza jasotzea funtsezkoa dela diotenekin; baina, horrez gain, norberak gaiarekiko erabateko konpromisoa hartzea eta ahalegina egitea ere premiazkoak direlakoan nago. Ardura besteengan jartzea baino norberak bere esku dagoena egingo balu, kontzientzia piztu eta egoerak hobera egingo luke; hau da, formakuntza aldarrikatzea beharrezkoa dela uste duduan moduan, norberaren erantzukizuna da horietan jasotakoa egunerokoa aplikatzeko ahalegina egitea eta, zentzu horretan, asko dago egiteke (bestela formakuntza horrek ez du probetxurik izango). Beraz, lan handia dago egiteke bi aldeetatik; bestela esanda, formakuntza egokia eta esanguratsua jasotzearen eta berrikasteko edo ohitura egokiak ikasteko ahalegina egitearen arteko batura da gakoa, ahotsa egoki erabiltzea eta kontziente izatea eragiten duena.

Gizabanako bakoitzak bere ahotsa du, bakarra, pertsonala, identitatea ematen diona eta, egoki erabiltzen eta zaintzen ez badu, epemuga laburra duena. Hezkuntzan baliabiderik baliotsuenetarikoa da eta ahots barik ez dago zer eginik, Haur Hezkuntzan bereziki, zeinetan hurrekin bat egiteko bide aberatsena den. Hain barneratuak ditugun ohitura desegokiak desikasten ikasteko ahalegina egitea merezi du, ahotsa bizitza pertsonal zein profesionalerako beharrezkoa baitugu.

Esandakoagatik guztiagatik, irakasle izateko bidean gaudenok zein lanbidean ari diren profesionalak ahotsaren erabilera egokiaren eta haren zaintzaren inguruan kontzientzia piztea izan da lan honen ekarpen nagusia, baita norberak bere buruarekiko konpromiso hori hartzeko premia ikustaraztea ere. Azken finean, hori beharrezkoa dugu irakasle



eredugarria izateko zein lana arrakastaz betetzeko eta, era berean, haurren eta norberaren ongizatea bermatzeko. Jarreraz aldatzea eta ohitura desagokiak desikastea egokiak ikasteko lortzen badugu, nork bere altxorraz gozatuko du eta haurrak gurekin batera gozaraziko ditugu.

## 6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Abo-Hasseba, A., Alku, P., Geneid, A. eta Waaramaa, T. (2017). Difference in voice problems and noise reports between teachers of public and private schools in Upper Egypt. *Journal of Voice*, 31, (4), 508-e11. 2018-11-2an berreskuratua, [https://www.jvoice.org/article/S0892-1997\(16\)30187-4/fulltext](https://www.jvoice.org/article/S0892-1997(16)30187-4/fulltext) -tik.
- Agosti, C. eta Rapp, C. (1988). El niño, el mundo sonoro y la música. Alcoi: Marfil.
- Aguerri, E. (1998). *Ahots teknika: Técnica vocal*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Akoschky, J., Alsina, J., Díaz, M. eta Giráldez, A. (2008). *La música en la escuela infantil (0-6)*. Bartzelona: Graó.
- Alcalde, M. (2001). La técnica vocal. Importancia de la prevención: ámbitos en los que se trabaja la técnica vocal. *Ponencia presentada en las V Jornadas de Audición y Lenguaje, Madrid, España*, 14-18. 2018-11-2an berreskuratua, <http://www.higieneocupacional.com.br/download/la-problemativa-voz.pdf> -tik.
- Alsina, P. (2004). Educación musical para una educación de calidad. *Eufonia: La música educa*, (30), 23-27. Bartzelona: Grao.
- Bermúdez, A.C., Cesar, M., Fernández, C. G., Pazo, T., Sardiñas, A. eta Thompson, A.L. (d.b.). *Experiencias de la aplicación del programa de voz y dicción en la escuela de maestros emergentes "Revolución Húngara 1919"*. 2018-10-26an berreskuratua, <http://www.sld.cu/galerias/pdf/sitios/rehabilitacion-logo/programa de voz y diccion en una escuela de maestros.pdf> -tik.
- Bernal, J. (2005). Sentir, vivir, pensar, expresar música: un proyecto formativo integrado para la educación infantil. *Eufonía: Recursos musicales en la educación infantil*, (33), 8-13. Bartzelona: Graó.
- Busto, I. (1995). *Tratamiento de los problemas de la voz*. Madril: Cepe.
- Calatrava, M.A. (2012). *Educación de la voz y prevención de sus patologías. Seguridad y salud laboral docentes*. Junta de Andalucía. 2018-10-29an berreskuratua, [http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/salud/contenidos/BibliotecaVirtual/Documentos/CursoEducacionVoz/1158924432547\\_curso de educacin de la voz.pdf](http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/salud/contenidos/BibliotecaVirtual/Documentos/CursoEducacionVoz/1158924432547_curso de educacin de la voz.pdf) -tik.
- Canuyt, G. (1985). *La voz: Técnica vocal*. Buenos Aires: Hachette.
- Cañete, M.M. (2010). La voz en los niños y niñas de educación infantil. Orígenes de la voz humana. La voz: parte teórica y practica. *Innovación y experiencias educativas*, (26). 2018-10-24an berreskuratua, [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_26/MARIA DEL MAR CANETE PULIDO\\_02.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_26/MARIA DEL MAR CANETE PULIDO_02.pdf) -tik.
- Castellá, J.M. eta Vila, M. (2015). *10 ideas claves: enseñar la competencia oral en clase, aprender a hablar en público*. Bartzelona: Grao.
- Claeys, S., Van Houtte, E., Van Lierde, K. eta Wuyts, F. (2011). The impact of voice disorders among teachers: vocal complaints, treatment-seeking behavior, knowledge of vocal care, and voice-related absenteeism. *Journal of voice*, 25, (5), 570-575. 2018-10-26an berreskuratua, <https://biblio.ugent.be/publication/1204571/file/2094938.pdf> -tik.
- Comellas, I. eta Perpinya I. (1984). *La psicomotricidad en preescolar*. Bartzelona: Ceac.
- Cortázar, M. eta Rojo, B. (2007). *La voz en la docencia: Conocer y cuidar nuestra herramienta de trabajo*. Bartzelona: Graó.

- Cremades, R. (2017). *Desarrollo de la expresión musical en educación infantil*. Madril: Paraninfo universidad.
- Del Mar, R. (2017). *Importancia de la educación de la voz en los docentes de Educación Infantil*. (Argitaratu gabeko Gradu Amaierako Lana). Universidad de Las Palmas de Gran Canaria. Kanaria Handia.
- Díaz, M., Ibarretxe, G., García, E., Malbrán, S. eta Riaño, M.E. (2010). *Fundamentos musicales y didácticos en educación infantil*. Santander: PubliCan, Ediciones de la Universidad de Cantabria.
- Dimon, T. (2013). *La voz cantada y hablada. Aprende a usar tu voz de manera natural, poderosa y sin esfuerzo, comprendiendo cómo funciona*. Madril: Gaia.
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). 237/2015 dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko. [237/2015 dekretua].
- Vitoria-Gasteiz: EHAA. 2018-10-13an berreskuratua, <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf> -tik.
- Federico, F.J. (2005). *El embarazo musical. Estimulación, comunicación y vínculo prenatal a través de la música*. Buenos Aires: Kier.
- Fiuza, M. (2011). Una realidad olvidada: la salud vocal en Educación Infantil y Primaria. *Revista galego-portuguesa de psicología e educación*, 19, (1), 27-40. 2018-10-15ean berreskuratua, [https://ruc.udc.es/dspace/bitstream/handle/2183/10441/RGP%2019\\_1%202011%20art%202.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://ruc.udc.es/dspace/bitstream/handle/2183/10441/RGP%2019_1%202011%20art%202.pdf?sequence=1&isAllowed=y) -tik.
- Gassull, C., Godall, P. eta Martorell, M. (2000). La educación de la voz y la salud vocal en la formación de los maestros. *Revista electrónica de LEEME*, (5). 2018-10-17an berreskuratua, <https://ojs.uv.es/index.php/LEEME/article/view/9691/9129> -tik.
- Gustems, J. (2007). *La respiración en el canto*. 2018-10-28an berreskuratua, [http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/11533/1/respiracion\\_canto.pdf](http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/11533/1/respiracion_canto.pdf) -tik.
- Itza, E.D. (1993). *El lenguaje: estructuras, modelos, procesos y esquemas: un enfoque pragmático*. Oviedo: Universidad de Oviedo.
- Larrea, O. (2013). Guía práctica para el cuidado y la optimización de la voz del docente. *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, (19), 271-279. 2018-10-25ean berreskuratua, <http://revistas.ucm.es/index.php/ESMP/article/view/42034> -tik.
- Martín, R. (2016). *Curso de prevención y cuidado de la voz para docentes*. (Argitaratu gabeko Gradu Amaierako Lana). Salamancako Unibertsitate Pontifikala. Salamanca.
- Mehrebian, A. (1972). *Nonverbal communication*. Chicago: Aldine-Atherton.
- Meltzoff, A. (1995). Understanding the intentions of others: re-enactment of intended acts by 18 month old children. *Developmental Psychology*, 31, (5), 838-850.
- Mesias, O. (2004). *La investigación cualitativa*. (Argitaratu gabeko Doktorego-tesia). Venezuelako Unibertsitatea.
- Muñoz, J.R. (2001). La voz y el canto en la educación infantil. *Eufonia: En torno a la voz humana*, (23), 43-54. Bartzelona: Grao.
- Olabuénaga, J. I. R. (2012). *Metodología de la investigación cualitativa* (15. edizioa). Deustoko Unibertsitatea: Bilbo. 2019-3-15ean berreskuratua, [https://www.academia.edu/22351468/LA\\_INVESTIGACION\\_CUALITATIVA](https://www.academia.edu/22351468/LA_INVESTIGACION_CUALITATIVA) -tik.
- Pascual, P. (2006). *Didáctica de la música para educación infantil*. Madril: Prentice Hall.
- Pazo, T. (2004). ¿Cómo educar la voz del maestro?. *CD memorias del II Congreso cubano de logopedia y foniatría y II Encuentro internacional de trastornos del lenguaje, habla y voz*. La Habana: DESOFT. 2018-10-28an berreskuratua, [http://www.sld.cu/galerias/pdf/sitios/rehabilitacion-logo/como\\_educar\\_la\\_voz\\_en\\_el\\_maestro.pdf](http://www.sld.cu/galerias/pdf/sitios/rehabilitacion-logo/como_educar_la_voz_en_el_maestro.pdf) -tik.
- Phillips, K. H. (1996). *Teaching kids to sing*. Estatu Batuek: Schirmer Cengage Learning.
- Ranchal, A. eta Vaquero, M. (2008). Protocolo para la vigilancia de la salud del profesorado con atención a la enfermedad profesional. *Medicina y Seguridad del Trabajo*, 54, (211), 47-60. 2018-11-3an berreskuratua, <http://scielo.isciii.es/pdf/mesetra/v54n211/original3.pdf> -tik.
- Rodrigo, M. (2004). Enseñanza vocal: aprende a cuidar la voz de forma práctica. *Educación en el 2000*, 181-185. 2018-10-13an berreskuratua,

- [http://servicios.educarm.es/templates/portal/images/ficheros/revistaEducarm/9/revista8\\_22.pdf](http://servicios.educarm.es/templates/portal/images/ficheros/revistaEducarm/9/revista8_22.pdf) -tik.
- Roque, M. (2007). La voz del docente: voz proyectada. *I Plan andaluz de salud laboral y prevención de riesgos laborales del personal docente de los centros públicos dependientes de la Consejería de Educación*. 2018-10-25ean berreskuratua, [https://www.juntadeandalucia.es/empleo/webiapr/ladep/sites/es.empleo.webiapr.ladep/files/recursos/documentacion\\_normativa/Lavozdeldocente\\_VozProyectada.pdf](https://www.juntadeandalucia.es/empleo/webiapr/ladep/sites/es.empleo.webiapr.ladep/files/recursos/documentacion_normativa/Lavozdeldocente_VozProyectada.pdf) -tik.
- Sabbatella, P. (2001). Re-educación de la voz y el lenguaje en educación musical. *Eufonia: Musica para todos*, (21), 98-106. Bartzelona: Grao.
- Sanjosé, V. (2003). *Didáctica de la expresión musical para maestros*. Balentzia: Piles.
- Sanuy, M. (1996). *Aula sonora: Hacia una educación musical en primaria*. Madril: Morata.
- Sanuy, M. eta Sanuy, C. (1982). *Música, maestro: Bases para una educación musical: 2-7 años*. Madril: Cincel.
- Steinbeck, J. (1962). *Travels with Charley in search of America*. New York: Viking Press.
- Tejeda, P. (2001). Importancia de la voz en la profesión docente. *La Problemática de la voz en los docentes*. 2018-11-2an berreskuratua, <http://www.higieneocupacional.com.br/download/la-problematika-voz.pdf> -tik.
- Tomatis, A. (1996). *El oído y el lenguaje*. Bartzelona: Biblaria.
- Torres, M.J. (2011). La importancia de la educación auditiva, rítmica y vocal en la etapa de educación infantil. *Innovación y experiencias educativas*, (39). 2018-10-24an berreskuratua, [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_39/MARIA\\_JOSE\\_TORRES\\_MENDEZ\\_02.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_39/MARIA_JOSE_TORRES_MENDEZ_02.pdf) -tik.
- Vila, J.M. (2008). La voz, identidad y comunicación. *Conferencia inaugural de las jornadas de ALPA en Oviedo*. 2018-10-30ean berreskuratua [http://www.espaiveu.com/web/equip/vila/vila\\_5.pdf](http://www.espaiveu.com/web/equip/vila/vila_5.pdf) -tik.
- World Health Organization. (1986). Psychosocial factors at work: recognition and control. *Occupational safety and health series*, 56, 321. International Labour Office.
- Zabalza, M. A. (2009). *Calidad en la educación infantil*. Madril: Narcea.